

**SANTA TERESAREN FUNDAZIOAK**  
**LIBURUAREN TESTU AUKERATUAK**  
**(L. Baraiazarraren itzulpenetik A. Oleak aukeratuak)**

**1. Hasiera: Avilako San Joseren komentua (F 1, 6 - 8)**

6. Bada, pertsona ezerez hau aingeruzko arima hauen artean zegoela, nik halako itxura hartzen bainien, ez zidatelako esan gabe uzten inolako hutsegiterik, barrukoak baziren ere; eta Jaunak egiten zizkien mesedeak eta ematen zizkien desira gartsuak eta askapena oso handiak ziren; haien pozbidea bakardadean bizi izatea zen, eta horrela baieztatzen zidaten sekula ez zirela asetzen bakarrik egoteaz, eta horrela oinazetzat zuten bisitak hartzea, senideenak baziren ere; ermita batean egoteko aukera gehien zuen hura zen zoriontsuena. Arima hauen ondasun handia eta Jainkoak sufritzeko eta bere zerbitzurako ematen zien adorea, emakumeegan ziurra ez dena, kontuan izanik, iruditzen zitzaidan askotan helburu handiren baterako izango zirela Jaunak haiengan jartzen zituen ondasunak; ez gero izango zena burutik pasatzen zitzaidalako, orduan ezinezkoa zirudielako, hura irudikatzeke oinarririk ez baitzen; izan ere, zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta gartsuagoak ziren arimaren bati on egiteko nire desirak; eta askotan, altxor handi bat gordeta zuenaren eta hartaz guztiek goza dezatela nahi eta banatzeko orduan eskuak lotuko balizkiote bezala ikusten nuen neure burua; nire arima horrela zegoela uste nuen, Jaunak urte haietan egiten zizkidan mesedeak oso handiak baitziren eta hori guztiori gaizki erabiltzen nuelakoan nengoen. Neure otoitz eskasez zerbitzatzen

compeñala fin  
daçion de la ysaçion del conuente  
de medicina del campo

Asi como los de los medos por donde se como  
tratar de esta fundaçion y de lo de mas

cinco años des pueç de la fundaçion de la ysaçion de  
a si la eñtade en el q' a lo q' aora e tiepo me pareçe  
ser a los modos de caçion de un vida cuyo fofreçion  
qujetud echa a a to me no un dhoç veçes un a bren  
eç te tiepo e traço a algunas don çelloç e tiepo  
de poca edad a quje el mundo a lo q' pareçion a yo  
ya pa si figun los mnestros de su galoçion e fofreçion  
façion do lo el feñoç e a pueçion de me tiepo a loç  
va y da de la traçaçion a la do ta do loç de ta tiepo  
feçion e a a ta con fofreçion a loç a loç a loç  
ro de tres e q' e el q' e ta da de tiepo a loç a loç  
façion a de la tiepo e me e ta da de tiepo a loç a loç  
moç ta façion a loç a loç a loç a loç a loç a loç  
de feçion a loç a loç a loç a loç a loç a loç  
y a loç a loç a loç a loç a loç a loç a loç  
q' façion a loç a loç a loç a loç a loç a loç  
a meçion feñoç de veç ta toç a loç a loç a loç  
eç feçion e el deç a loç a loç a loç a loç a loç  
te y o q' e ta da a loç a loç a loç a loç a loç a loç

nuen Jauna; beti saiatzen nintzen ahizpek beste horrenbeste egin zezaten eta arimen ona eta Elizaren ugaritzea bilatzera zaletu zitezten; eta haiekin harremanak zituztenak beti gertatzen ziren onerako gogoaz. Eta honetan murgiltzen ziren nire desira gartsuak.

7. Lau urte igaro zirenean, (uste dut zer bait gehiago ere izango zirela), fraide frantziskotar bat, Aita Alonso Maldonado zeritzana<sup>1</sup>, etorri zen ni ikustera; Jainkoaren zerbitzari handia zen, arimen onerako nik nituen desira berak zituena; hark egitez bete zitzakeen desira haiek, horregatik inbidia handia nion. Indiatik etorria zen orain dela gutxi. Han doktrinarik ezaz galtzen ziren milioika eta milioika arimaz hitz egiten hasi zitzaidan, eta sermoi eta hitzaldi bat egin zigun, penitentziarako gogoaz berotuz, eta joan zen. Ni hainbeste arima galtzeaz hain samindurik, azalak ere hartzen ez ninduela lehertu beharrean geratu nintzen. Ermita batera joan nintzen malkotan urtua<sup>2</sup>. Dei egiten nion gure Jaunari, bere zerbitzurako arimaren bat irabazteko modua eman ziezadan, deabruak hainbeste eramaten zituenez gero, eta nire otoiak lor zezan zer bait, gehiagotarako ez bainintzen ni. Inbidia handia nien Jaunaren maitasunagatik honetan jardun ahal zutenei, milaka heriotza igaro behar bazituzten ere. Eta horrela gertatzen zait, santuen bizitzetan arimak konbertitu zituztela irakurtzen dugunean, horrek askoz ere debozio handiagoa ematen dit eta baita samurtasun eta inbidia handiagoa ere, sufritzen dituzten martiritza guztiak baino, hauxe delako gure Jaunak niri eman didan joera; geure ahalegin eta otoienez, beraren errukiagatik, Jaunarentzat irabazten dugun arima bat, egin diezazkiokegun zer-

<sup>1</sup> Alonso Maldonado, 1510/1516 inguruan jaioa eta 1597/1600 inguruan hila, misiolaria izan zen Espainia Berrian (Mexiko) 1551tik 1565era bitarteko hamarkadan. Azken data honen ondoren, indioen alde hitz egin zuen Madrilen eta Erroman, Erregearen eta Aita Santuaren aurrean. Gar biziko gizona zen, eta bere bizitzaren amaieran Inkisizioak auzipetu zuen.

<sup>2</sup> *Ermita batera joan nintzen*: Ávilako San Josereneko baratzean eraikiak zeuden ermitetako batera.

bitzu guztiak baino gehiago estimatzen duela iruditzen zitzaidan<sup>3</sup>.

8. Bada, ni nahigabe handi honek harturik nengoela, gau batean, otoitzean ari nintzela, gure Jauna agertu zitzaidan ohi duen bezala<sup>4</sup>, eta maitasun handia erakutsiz, kontsolatu nahi banindu bezala, esan zidan: *Itxaron pixka bat, ene alaba, eta gauzak handiak ikusiko dituzu.*

Hitz hauek nigan hain josiak geraturik, ezin nituen burutik kendu. Eta hartaz asko pentsatu arren, zer izan zitekeen ezin igarri banuen ere, ezta irudikatzeke biderik ikusten ere, oso kontsolaturik geratu nintzen eta hitz hauek egia bihurtuko zirelako ziurtasun handiaz; baina nola egia bihurtuko ziren, ez zen egundo etorri nire irudimenera. Horrela igaro zen, uste dudanez, beste urte erdi, eta horren ondoren, orain esango dudana gertatu zen<sup>5</sup>.

<sup>3</sup> Santa Teresaren misio-garraren dokumentu interesgarria. Graciánek iruzkin hau dakar: “Espiritu hau ikusi nahi duenak... Ama Teresa Jesusenarekiko harremanetan aurkituko du haren liburuetan sumatzen den bezain otoitz gorena, eta arimen aldeko gar bizia, mila aldiz desira baitzuen gizonezkoek dituzten askatasun, dohain eta ofizioak izatea, arimak Jainkoagana ekartzeko, predikuak eginez, aitortzak entzunez eta jentilak konbertituz, Kristogatik odola isurtzeraino; eta egundo ez zidan besterik azpimarratzen, predikatzeari ez uzteko baizik; eta horretarako, abisu eta aholku ugari ematen zizkidan, eta Jainkoaren aurkako irainak eragozteko eta arimak zerurantz bideratzeko ekintzetan parte har nezala esanez, nekez maitatuko zuela Jesu Kristo gurutziltzatua eta arimengatik hila, infernura nola doazen ikusten duenak, eta espirituzko baretasun pixka bat lortzearren itxirik geldidagoenak” (*Scholias y adiciones... a la vida de la Madre Teresa, de Ribera, in El Monte Carmelo* 68 [1960] 110. or.).

<sup>4</sup> *Obi duen bezala*: horrelako esamoldez adierazi ohi ditu Jaunaren Gizatasunaren irudizko ikuskariak, *Bizitza Liburuko* 28, 3an datorrena bezalakoak. Ik. *Bizitza Liburua*, 40, 5, azpiko oharra; 29, 4.

<sup>5</sup> Gertakari hauen kronologia erraz ezar daiteke: Ávilako San Jose 1562ko abuztuan fundatu zuen; lau urte igarotzen dira (edo pixka bat gehiago), eta A. Maldonadoren bisita izan zen, 1566ko udazkenean. Data horretan, gutxi gorabehera, Jauna agertu zitzaion; beste urte erdi geroago (8. or.), eta 1567ko abuztuan gaude, Medinako fundazioa: bost urteak oso baketsuak

## 2. Lehenngo fundazioa Avilatik kanpora (F 3, 1 – 18)

1. Ni ardura hauekin guztiekin nengoela, Jesulagunen laguntza bilatzea erabaki nuen, toki hartan, Medinan, oso onartuak zirelako; lehenbiziko fundazioan idatzia dudanez, haien ardurapean izan nuen urte luzez neure arima, eta arimari on handia egin ziotelako, berariazko maitasuna diet<sup>6</sup>. Gure Aita Jeneralak agindu zidana idatzi nion hango errektoreari; hain zuzen ere, urte askotan nire aitor-entzulea izan zena zen, esanda dagoenez, izenik esan ez badut ere. Baltasar Alvarez zeritzan, une honetan probintziala dena<sup>7</sup>. Berak eta gainerakoek esan zuten ahal zutena egingo zutela kasu honetan, eta egin ere halaxe egin zuten herrikoen eta prelatuaren<sup>8</sup> baimena lortzeko, pobretasunezko monasterioa izanik, alde guztietan baititu zailtasunak; eta horrela, egun batzuk behar izango ziren bideratzeko.

2. Honetara etorri zen elizgizon bat, Jainkoaren zerbitzari handi eta munduko gauzetatik ongi askatua, eta otoitz-bideari oso emana zena. Ni nengoen monasterioko kapilaua zen; Jaunak honi niri ematen zizkidan desira berberak ematen zizkion, eta horrela laguntza handia eman dit niri, aurrerago ikusiko denez. Julian Ávilako deritzo<sup>9</sup>.

Nik baimena banuen, baina ez nuen etxerik, ezta zurikorik ere erosi ahal izateko. Nola izango nuen krediturik, bada, Jaunak eman ezik, ni bezalako erromes batek?<sup>10</sup> Jaunak nahi izan

---

izan ziren eta hori aipatzen du 1. zenbakian.

<sup>6</sup> *Lehenbiziko fundazioan idatzia dudanez*: hau da, *Bizitza Liburuaren* azken kapituluetan. Ikus esandakoa *Fundazioen* Hitzaurreko 2. zenbakian.

<sup>7</sup> A. Baltasar (1533-1580), data haietan (1573) ez zen izatez Probintziala, A. Gil González Dávila Probintzialaren ordezkoa baizik, hau aurreko urtean Erromara joana baitzen.

<sup>8</sup> Prelatua On Pedro González Mendoza zen, Salamancako Gotzaina, eta Medina elizbarruti horren mende zegoen.

<sup>9</sup> *Julian Ávilako* (1572-1605): Maria San Joserenaren, lehen karmelen lau fundatzaileetako baten, neba zen, Teresari bidaia askotan lagundu ziona, haren “ezkutari” izateaz harro zegoena.

<sup>10</sup> *Ni bezalako erromes batek*: “Erromes” hitzak pelegrin edo beilari adieraz

zuen, bertute handiko neskatila bat, San Joserenean lekurik izan ez zuen bat, beste etxe bat egiten zela jakinik, nigana etortzea han har nezala eskatuz<sup>11</sup>. Honek zuriko batzuk bazituen, oso gutxi, ordea; ez zen nahiko etxea erosteko, bai alokatzeko (eta horrela alokairuko etxe bat hartu genuen) eta biderako laguntzarako. Euskarri hau baino besterik ez genuela, Ávilatik San Joserenetik bi moja eta ni irten ginen, eta lau Gizakundekotik (Erregela lasaituko monasterioa da hau, San Jose fundatu aurretik ni nengoena), gure aita kapilauarekin, Julian Ávilakoarekin<sup>12</sup>.

3. Hirian jakin zenean, zeresana ugari izan zen: batzuek zoraturik nengoela zioten; beste batzuk zentzugabekeria hura noiz amaituko zeuden. Gotzainari –geroago esan zidanez– zentzugabekeria handia iruditu zitzaion, une hartan aditzera eman ez bazidan ere eta eragozpenik jarri nahi ez bazidan ere, oso maite ninduelako eta nahigaberik eman nahi ez zidalako. Neure adiskideek hainbat gauza esan zizkidaten, baina nik ez nien jaramon handirik egiten; izan ere, haiek dudamudakotzat zutena niri erraza iruditzen zitzaidan eta ezin nuen buruan sartu ez zela ongi burutuko.

Ávilatik irten ginenean, gure Ordenako fraide bati idatzi nion, A. Antonio Heredia izenekoari<sup>13</sup>, une hartan han den gure Ordenako monasterioko priorea zenari, etxe bat eros diezadan. Hark bera estimu handian zuen andre batekin hitz egin

---

gainera, txiroa, pobrea ere esan nahi du, eta adiera honetan darabil hemen Teresak. Euskaraz ere hitz horrek bi adiera horiek, behintzat, baditu. Pixka bat lehenago, ez zuela etxerik esan du, ezta *zurikorik* ere erosi ahal izateko. *Blanca* dio berak. Haren garaian baliorik txikieneko txanpona, gure *zurikoa*, *semaikoa* edo *zentimooa* bezalakoa.

<sup>11</sup> Isabel Fontecha zen, Ávilako alaba, Karmelen *Isabel Jesusena*.

<sup>12</sup> San Joserenetik, Maria Bautista eta Ana Aingeruena eraman zituen. Gizakundekotik, Ines Jesusena eta Ana Gizakundeko (Tapia), eta Teresa Zuta-beko (Quesada) eta Isabel Gurutzeko (Arias).

<sup>13</sup> *A. Antonio Heredia* (Erreforma Teresiarrean, Antonio Jesusena), 1510-1601), berehala ekin zion Erreformari San Joan Gurutzekorekin batera. Ik. 16-17 zenbakiak.



*Ama Teresa ibili zeneko lekuak*

zuen<sup>14</sup>; honek etxe bat zuen, guztia lurrera etorri zena, gela bat izan ezik, hau ongi ezarria baitzen. On-ona zen andrea eta saltzeko hitza eman zuen, eta hala egin zuten hitzarmena inolako fidantzarik eskatu gabe eta emandako hitza berme bakarra zelarik; izan ere, eskatuz gero, ez genukeen erremediorik. Guztia prestatuz zihoan Jauna. Etxe hau ia hormarik gabe zegoen-eta, horregatik beste bat alokatu genuen, hura ongi jartzen zen bitartean, nahiko zeregin baitzuen.

<sup>14</sup> Maria Suárez zen hau, Fuente el Sol-en emaztea.

4. Bada, lehenengo eguna iristean, gauez eta gaizki prestatu-rik gindoazelako nekaturik, Arevalon sartzerakoan, gure adiskidea zen elizgizon bat irten zitzaigun, emakume jainko-  
zale batzuen etxean ostatua prestatua ziguna, eta belarrira esan zidan ez geneukala etxerik; fraide agustindarren monasteriotik hurbil zegoelako eta haiek ez zutelako nahi gu han sartzea, eta auzia izango zela nahitaez<sup>15</sup>. Oi, ene Jainkoa! Zuk adorea eman nahi duzunean, Jauna, zein gutxi balio duten sor daitezkeen kontraesan guztiak! Alderantziz: uste dut gehiago berotu zitzaidala gogoan, deabrua nahasmena sortzen hasi zenez gero, Jauna monasterio hartaz baliatuko zela baineritzon. Hala ere, isilik edukitzeko esan nion, lagunengan nahasmenik ez sortzearren, batez ere Gizakundeko bi haiengan<sup>16</sup>, gainerakoak nigatik edozein neke igarotzeko prest baitzeuden. Bi haietatik bata priore-ordea zen, eta handik irteteko eragozpen handiak jarri zizkioten; biak ziren etxe onekoak, eta beren gogoz kontra zetozen, guztiek zentzugabekoa zeritzotelako, eta gero ikusiko nuen nik oso zuzen zebiltzala; izan ere, Jaunak honelako etxeren bat nik fundatzea nahi duenean, uste dut, burutua egon arte, inork ez duela nire kontrako iritzirik, asmoa bertan behera uzteko nahikoa dela deritzodanik. Orduan eragozpen guztiak batera jartzen zaizkit, gero ikusiko denez.

5. Ostatura iritsi nintzenean, toki hartan zela jakin nuen domingotar fraide bat, Jainkoaren zerbitzari handia, San Josere-  
nean egon nintzen garaian nire aitor-entzulea izandakoa. Fundazio hartan<sup>17</sup> haren bertuteaz asko hitz egin nuelako, hemen ez dut esango izena baino besterik: Aita Domingo Bañez mai-sua deritzo. Jakinduria eta zuhurtasun handikoa; haren gidaritzan nenbilen ni, eta haren iritzian ez zen gainerako guztien

<sup>15</sup> Graziaren Amaren komentua zen. – Gure adiskidea zen elizgizonari Alonso Esteban zeritzan.

<sup>16</sup> Gizakundeko monasteriotik etorririko lauretatik bi haiek hauek ziren: Isabel Arias eta Teresa Quesada. Lehenbiziko Priore-ordea zen.

<sup>17</sup> *Fundazio hartan*: Ávilako San Jose fundazioa kontatzen duenean.



iritzian zen bezain zaila nik egingo nuena; izan ere, batek Jainkoa zenbat eta hobeki ezagutu, orduan eta errazagoak egiten zaizkio haren obrak, eta Haren Maiestateak mesede batzuk egiten zizkidala jakinean egonik eta San Joseren fundazioan ikusi zuenagatik, denari zeritzan benetan egiteko modukoa. Asko poztu nintzen ikusi nuenean; izan ere, haren iritzia lagun izanik, guztia joango zela zuzen uste nuen. Bada, hara joanik, zer gertatzen zen esan nion isil-isilean. Berak uste zuen laster konpon genezakeela agustindarreko auzia; hala ere, niri gogor egiten zitzaidan edozein luzapen, hainbeste mojarekin zer egin ez nekielako; eta horrela, guztiak kontuz igaro genuen gau hura, baina gero guztiei esan zieten ostatuan.

6. Gero, goizean, gure Ordenako priorea Aita Antonio etorri zen hara, eta esan zuen erosteko hitzemandu zuen etxea nahikoa zela eta atari bat zuela eta han eliza txiki bat egin zitekeela, zenbat oihalekin apaindurik. Horretan geratu ginen; niri, behintzat, oso ongi iruditu zitzaidan, albait lasterren egitea komeni baitzitzaigun, geure monasterioetatik kanpo geundelako, eta baita kontrakotasunen bat izango zen beldur nintzelako ere, lehenengo fundazioan eskarmentua harturik bainengoen. Eta horrela, inork jakin orduko nahi nuen etxe-sartzea eginda egotea, eta horrela egitea erabaki genuen. Aita Domingo ere bat zetorren horretan.

7. Andre Mari abuztukoaren bezperan, gaueko hamabietan, iritsi ginen Medina del Campora. Santa Ana monasterioan jaitsi ginen, eta oinez joan ginen etxera. Jainkoaren erruki handia izan zen, ordu hartan zezenak sartzen zituela itxituren beste egun batean zezenketa egiteko, eta guk haietako batekin ere topo ez egitea. Gu geure baitan murgildurik gindoazen eta ez ginen ezertaz gogoratu; baina Jaunak, beraren zerbitzuan jardun nahi dutenak beti gogoan dituenak, gorde gintuen; egia esan, han ez zen beste xederik Jaunaren zerbitzua baino.

8. Etxera iritsi ondoren, patio batean sartu ginen. Hormak nahiko eroriak iruditu zitzaizkidan, baina ez eguna argitu ondoren agertzen ziren bezain gaizki. Badirudi fraide bedeinkatu hura itsutu zedila nahi izango zuela Jaunak, Gure Jauna han ipintzea ez zela komeni ikus ez zezan. Ataria ikusirik, lurra handik kendu beharra zen, teilatu hutsa zuen estalgarri, hormak zuritu gabe, gaua laburra zen, eta tapiz batzuk baizik ez genekartzan, uste dut hiru zirela; atariak zuen luzerarako, ezereza zen. Nik ez nekien zer egin, han aldarea ezartzea ez zela komeni uste nuelako. Jaunaren borondatea izan zen, berehala egin zedila nahi baitzuen, andre haren etxezainak<sup>18</sup> jabearen tapiz ugari izatea etxean, eta damasko urdinezko ohe bat ere bai, eta, onona zenez gero, guri nahi genuena emateko agindu zuela.

9. Nik, hain jarrera ona ikusi nuenean, Jauna goretzi nuen, eta gainerakoek ere hala egingo zuten; hala ere ez genekien zer egin iltzeekin, erosteko ordua ere ez zen. Hormetan bila hasi ziren; azken batean, lanari gogor ekinik, konponbidea aurkitu zen. Batzuk hormak estaltzen, gu lurra garbitzen, hain presa handia harturik, eguna argitzean, aldarea ezarria zen, eta kanpaitxo korridore batean, eta berehala eman zen meza<sup>19</sup>. Hau nahiko zen etxe-sartzea egiteko. Ez hori bakarrik, horrez gainera Gure Jauna jarri genuen<sup>20</sup>, eta aurrez aurre zegoen ate baten zirrikitu batzuetatik jarraitu ahal izaten genuen meza, beste lekurik ez baitzen.

<sup>18</sup> Maria Suárez zen ugazabandrea.

<sup>19</sup> "Eguzkia irten zenean, gutzia prest eta A. Priorea lehenengo meza emateko jantzirik zegoela..., mojek kanpaitxo bat jo zuten eliztarrei mezatara dei eginez auzokoak harri eta zur utzirik ustekabeko berriaz. Hainbesteko jendetza etorri zen, non atarian ez baitziren sartzen denak, eta monasterio gauetik goizera egina ikusirik, elkarri begiratzen zioten, eta irakara harturik, ez zekiten zer esan ere" (Frantzisko Santa Mariarena, *Reforma...* 1. liburuko, 2. liburuko 5. kapitulua).

<sup>20</sup> Aurretik Teresak uste zuen Gure Jauna jarri arte ez zegoela fundaziorik (ik. 12. zenbakia). Geroago, urte batzuk igaro ondoren (1570), irten zen uste oker horretatik, Salamancako Karmel fundatzean (ik. 19, 3).

10. Une honetara arte ni oso pozik nengoen, niretzat oso pozgarria delako Gure Jauna dagoen eliza bat gehiago ikustea. Baina gutxi iraun zidan. Izan ere, meza amaitu zenean, leiho batetik patiora begiratu nuen pixka bat eta alde batzuetatik horma guztiak lurrean ikusi nituen, eta haiek konpontzeko egun asko beharko ziren. Oi ene Jainkoa! Nik Haren Maiestatea kalean jarrita ikusi nuenean, luterotar hauengatik ditugun garai hain arriskutsuan, bai atsekabe larriak hartu zuela nire bihotza!

11. Honekin bildu ziren gaizki esaka aritu zirenek jar zezaketen zailtasun guztiak, eta argi ikusi nuen zuzen zebiltzala. Ezinezkoa iruditzen zitzaidan hasitako egintzan aurrera joatea; izan ere, lehen, Jainkoagatik egiten nuenez gero, guztia iruditzen zitzaidan erraza, baina orain tentaldiak hainbestearaino estutzen zuen haren ahalmena, non haren mesede bat ere ez nuela jaso iruditzen baitzitzaidan; neure ezereztasun ahalmen eskasa nituen soilik gogoan. Bada, hain gauza ezerez euskarritzat nuela, zer gertaera on itxaron nezakeen? Eta ni neu bakarrik egon banintz, uste dut hobeki igaroko nukeela; baina gogor egiten zitzaidan lagunak etxera itzuli beharko zutela pentsatzea, handik gogoz kontra irten ondoren. Hasiera honetan huts eginez gero, Jaunak aurrerantzean egingo zuela buruan sarturik neukana ere ezin egin izango zela iruditzen zitzaidan. Gainera, horri gehitzen zitzaion otoitzean ulertu nuena irudipena izan zitekeelako beldurra, eta ez zen hori atsekabe txikiagoa, askoz handiagoa baizik; izan ere, beldur handi handia nuen, deabruak ez ote ninduen engainatuko pentsatuz.

Oi ene Jainkoa! Bai gogorra dela Zuk nahigabe artean utzi nahi duzun arima bat ikustea! Egia esan, nahigabe hau eta fundazio hauetan izan ditudan beste batzuk gogora datozkidanean, horren ondoan ez direla kontuan hartzekoak, iruditzen zait, gorputzeko nekeak, asko izan badira ere.

12. Hain estu hartzen ninduen nahigabe honetatik guztitik, ez nien ezer agertzen neure lagunei, ez nituelako nahigabetu nahi lehendik zeuden baino gehiago. Nahigabe honekin izan nintzen arratsaldera arte; une hartan Jesusen Lagundiko errektoreak ni ikustera jesulagun bat bidali zuen eta honek biziki adoretu eta poztu ninduen. Nik ez nizekion esan nituen nahigabe guztiak; geure burua kalean ikusteak ematen zidana agertu nion soilik. Kosta ahala kosta, errentako etxea bila diezagula esaten hasi nintzaion, hara pasatzeko, beste hura konpontzen zen bitartean, eta pozten hasi nintzen jende asko etortzen zela ikusirik, eta inor ez zen ohartu gure zentzugabekeriaz; Jainkoaren errukia izan zen, gauza zuzena izango baitzen Sakramentu guztiz Santua guri kentzea. Orain darabilt gogoan neure tontakeria eta guztien aldetik ardua handirik ez izatea Gure Jauna kontsumitzeko; hau eginez gero, egingdako guztia desegiten zela uste nuen.

13. Ahaleginak ahalegin, ez zen aurkitu errentan hartzeko etxerik inguru hartan guztian; horrela, nik egun eta gau oso nekagarriak igarotzen nituen. Izan ere, Sakramentu guztiz Santua beilatzeko beti gizonak jartzen banituen ere, lokartuko ziren arranguraz egoten nintzen; eta horrela jaiki egiten nintzen gauzez leiho batetik begiratzeko; ilargi oso argia zen eta ongi ikus nezakeen. Egunduetan guztietan jende ugari zetorren, eta ez bakarrik gaizki iruditu ez, debozioa ere ematen zien gure Jauna estalpetxoan berriro ikusteak. Eta Haren Maiestateak, gugatik beheratzen egundo ere nekatzen ez denaren antzera, badirudi ez zuela nahi handik irteterik.

14. Zortzi egun igaro ondoren, merkatari batek (etxe oso onean bizi zenak) premia ikusirik, etxe haren goiko solairura joan gintezela esan zigun; geure etxean bezala egon gintezkeela<sup>21</sup>. Areto oso handia eta urre kolorekoa zuen, elizatzat eman ziguna. Eta erosi genuen etxearen ondoan bizi zen an-

<sup>21</sup> Merkatari honi Blas Medina zeritzan.

dre batek, Elena Quiroga zeritzanak<sup>22</sup>, Jainkoaren mirabe handia zenak, esan zidan Sakramentu guztiz Santua egongo den kaperera eraikitzen lagunduko zidala eta baita itxituren egoteko eran koka gaitezen ere. Beste pertsona batzuek ere limosna ugari ematen ziguten mantentzeko, baina andre hau izan zen gehien lagundu zidana.

15. Honekin baretzen hasi nintzen, joan ginen lekuan itxitura osoan geundelako, eta orduak errezatzen hasi ginen; bestalde, etxean priore ona presaz ari zen, neke handia hartuz. Hala ere, bi hilabete behar izan zituen; dena dela, urte batzuetan egoki samar egon ahal izateko eran jarri zen. Gerora hobetuz joan da gure Jauna.

16. Hemen nengoela, ordurako fraideen monasterioen arduraz niharduen nik, eta bat ere ez nuenez gero –esan dudanez–<sup>23</sup> ez nekien zer egin; eta honela, isil-isilean, hango priorearekin hitz egitea erabaki nuen, zer aholku ematen zidan ikusteko, eta halaxe egin nuen. Hura biziki poztu zen jakin zuenean eta bera izango zela lehena hitzeman zidan. Nik burlatzat hartu nuen, eta halaxe esan nion; izan ere, beti fraide ona eta bildua eta estudioari oso emana eta bere gelan egoten zalea bazen ere, letraduna baitzen, halako hasierarako ez zitzaidan egokia iruditu; ez zuen izango espiriturik ezta ez zuen eraman ahal izango eraman behar zen laztasuna, ahula baitzen eta halako joerarik agertzen ez zuena. Berak baietz eta baietz esaten zidan, eta ziurtatzen zidan Jaunak duela egun asko deitzen ziola bizimodu estuago batera; eta horrela, erabakia hartua zuela kartusiarretara joateko eta haiengandik baietzta jaso zuela. Hala eta guztiz ere, niri ez zitzaidan erabat buruan sartzen, berari entzuteak poz ematen bazidan ere,

<sup>22</sup> Quiroga Kardinalaren iloba zen eta geroago karmeldar oinutsen abitua hartu zuen (1581) Medinako Karmel honetan, Elena Jesusena izenaz; monasterio berean ordurako moja zen beraren alaba, Jeronima Gizakundekoa. – Testuan *Quiroga* hitza Teresak berak tartekatu zuen lerro artean.

<sup>23</sup> Ik. 2, 5-6.

eta aldi baterako utz dezagula eskatu nion eta, bien bitartean, egingo zituen promesak betetzeko ariketak egiteko. Eta horrela egin zen: urtebete igaro eta urte horretan hainbeste neke eta salaketa askotako jazarpenak gertatu ziren-eta, bazirudien Jaunak probatu egin nahi zuela; eta berak hain ongi eramaten zuen gutzia eta hain probetxu handia ateratzen, non nik gure Jauna goresten bainuen, eta iruditzen zitzaidan hura honetarako prestatuz zihoala Haren Maiestatea.

17. Pixka bat geroago, urte gutxiko aita karmeldar bat, Salamancan ikasketak egiten ziharduena, hona etortzea egokitu zen, eta hau beste lagun batekin etorri zen; lagun honek gauza handiak kontatu zizkidan aita honek egin ohi zuen bizimoduaz. Frai Joan Gurutzeko zeritzan. Nik bihotzez goretsi nuen gure Jauna, eta hari hitz eginez, zeharo poztu ninduen, eta jakin nuen harengandik berak ere kartusiarretara joan nahi zuela<sup>24</sup>. Nik buruan zer asmo nerabilen agertu nion eta arren bai arren eskatu nion, itxaron zezala Jaunak monasterio bat ematen zigun arte, eta zein on handia litzatekeen, hobetzekotan, Ordena beraren barruan izatea, eta horrela Jauna askoz ere hobeki zerbitzatuko zuela. Berak hitzeman zidan halaxe egingo zuela, baina asko luzatu gabe gauzatekotan. Nik hasteko bi fraide nituela ikusi nuenean, arazoa konponduta zegoela iruditu zitzaidan, prioreak guztiz betetzen ez baninduen ere, eta horrela eta non hasi eduki arte ere zain egon nintzen pixka batean.

18. Mojak herrian gero eta ospe hobeagoa lortuz zihoazen eta haienganako maitasuna gero eta handiagoa zen, eta nire iritziz, arrazoiz; izan ere, bakoitzak gure Jauna nola hobeki zerbitzatu, besterik ez zerabilten gogoan. Gauza guztietan Ávilako San Joserenean bezala jokatzin zuten, Erregela eta Konstituzio berberak zirelako.

---

<sup>24</sup> Salamancako bi ikasle haiek Frai Pedro Orozko eta San Joan Gurutzeko, orduan Frai Joan San Matiasena izenekoak, ziren. Bigarren hau begira zegoeneko Kartusiarren monasterioa Paular zen (Segovia).

Jauna abitua hartzeko batzuei dei egiten hasi zen; eta hainbeste ziren haiei egiten zizkien mesedeak, non harri eta zur bainengoen ni. Izan bedi betiko bedeinkatua, amen; Berak maitatzeko, maitatua izatearen zain baizik ez baita egoten.

### 3. Frai Juan Kurutzekoagaz (F 13, 1–5)

1. Ni Valladolideko fundazio honetara joan baino lehen, hitz eginda nengoen Santa Anan Karmeldarren Ordenakoa zen eta une hartan Medinako priore zen Aita Frai Antonio Jesusenarekin eta Frai Joan Gurutzekorekin –esanda daukadanez– Jatorrizko Erregelako Fraide Oinutsen monasterioa egingo balitz, sartuko ziren lehenengoak izango zirela, eta etxea edukitzeko biderik ez neukanez gero, gure Jaunari gomendatu baino besterik ez nuen egiten; izan ere –esan dudanez–<sup>25</sup> ni pozik nengoen aita hauekin<sup>26</sup>. Aita Frai Antonio Jesusenari dagokionez, urtebete zen nik harekin harremanak nituela, eta Jaunak ongi probatua zeukan nekeetan eta perfekzio handiz zeraman. Aita Frai Joan Gurutzekori dagokionez, berriz, ez zen inolako probarik behar; izan ere, oihal-ahitudunen artean, oinetakodunen artean, bazegoen ere, beti egin izan zuen perfekzio eta erlijiotasun handiko bizitza. Jaunak beharrezkoena emanik, hau da, hasiera emateko fraideak, gainerakoa bideratzea nahi izan zuen.

2. Ávilako jaun batek, on Rafael zeritzanak<sup>27</sup>, ez dakit nola –ez bainaiz gogoratzen–, Oinutsen monasterio bat egin nahi zela entzun zuen; nik aurrez ez nuen sekula ere izan harrema-

<sup>25</sup> 3. kapituluko 16-17 zenbakietan. Santak oraingoan *fray Juan de la f* idazten du.

<sup>26</sup> Egia esan, guztiz pozik Frai Joan Gurutzekorekin zegoen soilik. A. Antoniori buruz bi aldiz esan du: *Halako hasierarako ez zitzaidan egokia iruditu* (3. kapituluko 16. zenbakian), eta *prioreak guztiz betetzen ez baninduen ere* (3. kapituluko 17. zenbakian).

<sup>27</sup> On Rafael Mejía Velázquez zeritzan, Durueloko hasierako liburuan datorenez.

nik berarekin; eta biztanle gutxiko lekutxo batean<sup>28</sup> berak zeukan etxe bat emango zidala esan zidan; uste dut hogei biztanle ere ez zirela izango –orain ez bainaiz gogoratzen–; maizter batentzat zeukan han eta honek hango errentaren ogia hartzen zuen. Nik, nolakoa izango zen irudikatzen nuen baina, gure Jauna goretsi nuen eta bihotzez eskerrak eman nizkion. Medina del Campora bidean zegoela esan zidan, eta ni harantz banindoan Valladolidedeko fundaziorako, bide zuzena zela eta ikusiko nuela. Nik baietz esan nuen, eta egin ere hala egin nuen, ekainean abiatu bainintzen Ávilatik moja lagun batekin eta Aita Julian Dávilarekin, bide hauetan laguntzen zidala esan dudana apaiz Ávilako San Josereneko kapi-lauarekin<sup>29</sup>.

3. Goiz abiatu baginen ere, bidea ez genuen ezagutzen-eta, oker hartu genuen; eta lekua gutxi entzuna zenez gero, ezin aurkitu zitekeen haren berri askorik<sup>30</sup>. Horrela ibili ginen neke handiz egun hartan, eguzkiak gogor jotzen zuelako. Hurbil geundela uste genuenean, oraindik beste hainbesteko bidea egin behar zen. Beti etortzen zaizkit gogora bide hartako neke eta burugabe ibiltzea. Horrela, gaua egin baino pixka bat lehenago iritsi ginen.

Etxean sartu eta halako egoeran ikusirik, ez ginen ausartu gau hartan han geratzen, garbi-ikuzi gutxi zuelako eta udaldiko bizkarroi ugari. Atari itxurazkoa zuen eta solairu bikoitza bere ganbararekin, eta sukaldetxo bat. Eraikin honek gure monasterioak behar zuen guztia zuen. Atarian eliza egin daitekeela etorri zitzaidan burura eta ganbaran korua, ongi baitze-torren, eta solairuan lo egiteko tokia.

<sup>28</sup> A. Graciánek ertzean hau idatzi zuen: *lekuak Duruelo zuen izena*.

<sup>29</sup> Ik. 3, 2 eta 10, 4.

<sup>30</sup> Duruelotik Ávilara 8 edo 9 legoako bidea zen. – Entzute handiagoa zuten Segoviako Duruelok eta Soriako Duruelok.



Nire moja lagunak, ni baino askoz hobea eta oso penitentzia zalea izan arren, ezin zuen onez eraman nik han monasterioa egiteko asmoa izatea, eta honela esan zidan: “egia esan, ene ama, ezin daiteke izan espiriturik, hoberena bada ere, hau eraman dezakeenik. Zu ez zaitez horretan ahalegindu”. Nirekin zihoan aitak, nire lagunak bezala pentsatzen bazuen ere, neure asmoak kontatu nizkionez gero, ez zidan kontra egin<sup>31</sup>. Elizara joan ginen gaua igarotzera, baina oso nekaturik geunden eta genuen igaro nahi itzarrik.

4. Medinara iritsi ginenean, berehala hitz egin nuen Aita Frai Antoniorekin, eta zer gertatzen zen esan nion eta ea bihartzik izango zuen aldi batean han irauteko; ziur egon zedila Jainkoak laster batean konponduko zuela, eta kontua hastea zela soilik (uste dut –esaten den bezala– orain ikusten dudan bezain argi nuela aurrean Jaunak egin duena, eta are argiago orain arte ikusi dudana baino; izan ere, hau idazten dudan unean, Fraide Oinutsen hamar monasterio daude<sup>32</sup> Jainkoari eskerrak), eta sinets zezala ez zigula baimenik emango ez aurreko probintzialak ez oraingoak (haren baimenarekin izan behar baitzen, hasieran esan nuenez)<sup>33</sup>, etxe oso onean ikusiko bagintuzte, hartarako baliabiderik ez izateaz gainera; halako baztertxo batean eta halako etxean, ordea, ez liekete kasurik ere egingo. Hari niri baino kemen handiagoa eman zion

<sup>31</sup> Nire moja lagunari Antonia Espiritu Santuarena zeritzan, Ávilako San Jo-sereneko hasierako lauretako bat. – Aipaturiko apaiza Julian Ávilako zen. Honi etxea oso txiroa iruditu zitzaion, landetxe antzekoa (*Vida de Santa Teresa*, Madril, 1881, 2. zat., 8. kap., 265. zenb.).

<sup>32</sup> Ordura arte fundatu ziren fraide oinutsen komentuak hauek ziren: Duruelo (Mancerara aldatua 1570eko ekainean), Pastrana, Alcalá Henares, Altomira, La Roda, San Juan del Puerto, Granada, La Peñuela eta Sevillako Los Remedios. Hauek beheratzi dira eta ez hamar; beharbada, Duruelo eta Mancera fundazio banakotzat hartuko ditu, edota kapitulu hau 1575 baino geroago idatzia izango balitz, Almodóvar del Campo ere zerrendan sartu beharko litzateke, urte horretan inauguratu baitzen.

<sup>33</sup> 2. kapituluko 5. zenbakian esan du. – *Aurreko Probintziala*: Angel Salazar. *Oraingo Probintziala*: Alonso González.

Jainkoak; eta esan zuen, ez han soilik, txerritoki batean ere egongo litzatekeela. Frai Joan Gurutzeko ere iritzi berekoa zen.

5. Orain aipaturiko bi fraideen<sup>34</sup> gogoia irabaztea baino besterik ez zitzaigun falta, baldintza horrekin eman baitzigun baimena gure Aita Jeneralak. Nik banuen Jaunagan lortuko nuen itzaropena, eta horrela, Aita Frai Antoniori esan nion ardura har zezala etxerako zerbait ekartzeko ahal zuen guztia egiteko. Ni idatzita geratu den<sup>35</sup> Valladolideko fundaziora joan nintzen Frai Joan Gurutzekorekin. Eta zenbait egunetan ofizialeekin etxea atontzen jardun genuenez gero, klausurarik gabe, aukera izan genuen Aita Frai Joan Gurutzekori geure jokaera guztiaren berri emateko, gogoan ongi josiak eraman zitzan gauza guztiak, bai hildurari dagozkionak, bai ahizpen batasunari eta elkarrekin ditugun jostaldiei dagozkienak, guztia hain neurtua izanik, ahizpen akatsak han ulertu ahal izateko eta Erregelaren laztasuna ongi eraman ahal izateko asaskaldi bat hartzeko baizik ez da. Hura hain ona izanik, nik behintzat gehiago ikasi ahal izan nuen beragandik, hark nigandik baino; baina ez zen irakastea nik egiten nuena, ahizpen jokatzeko era azaltzea baizik.

#### 4. Duruelo (F 14, 6–12)

6. Lehenbiziko meza 1568ko aurtengo Abenduaren lehen edo bigarren igandean (ez bainaiz gogoratzen igande hauetatik zeinetan izan zen) eman zen Belengo estalpetxo hartan, ez baitut uste hura baino hobea denik<sup>36</sup>. Garizuma aurrera zihoa-


<sup>34</sup> Frai Joan Gurutzeko eta Frai Antonio Jesusena ziren aipaturiko bi fraideak.

<sup>35</sup> Ik. 10. kap., 4. zenb.

<sup>36</sup> Ziur asko Abenduaren lehenengo igandea zen (1568-11-28). – Teresak hara egin zuen bisita, berriz, 1569ko Garizumaren lehenengo astean izan zen: otsailaren 22an irten zen Valladolidetik Toledorantz, bidean Medinan, Duruelon eta Ávilan geldituz. Urte hartan otsailaren 23an hausterre eguna zen eta fraideak Garizumako penitentzia giroan aurkitu zituen Teresak.

la, Toledoko fundaziora nentorrela, jo nuen hara. Goiz batean iritsi nintzen. Aita Frai Antonio Jesusena ari zen elizako ate aurrean erratza pasatzen, berak beti izaten duen aurpegi alai-tsuaz. Nik esan nion: “zer da hau, ene aita?, non geratu da ohorea?”. Hitz hauek esan zizkidan, zein pozik zegoen agertuz: “Madarikatzen dut ohorea aintzat nueneko garaia”.

Elizan sarturik, harri eta zur geratu nintzen, Jaunak han jarri zuen espirituaz konturaturik. Eta ez nintzen ni bakarrik; nirekin hara etorri ziren eta nire adiskideak ziren bi merkatarik ere, ez zuten negar baino besterik egiten. Hainbeste gurutze eta burezur zituen, izan ere! Ez zait egundo ere ahanzten ur bedeinkatu ontzirako zeukaten zurezko gurutze txiki bat, paperezko Kristoren irudia itsatsia zuena eta oso ongi landua den materialezkoa izan balitz baino debozio handiagoa ematen zuena.



*Fraide karmeldarren fundazioari buruzko kapitulua*

7. Korua ganbara izan zen, erdialdean altuago zena; han orduen otoitza erreza zezaketen; baina sartzeko eta meza entzuteko asko makurtu beharra zuten. Bi bazterretan bi ermitaxo zituzten elizara begira, aldarerantz bi leihotxorekin eta burukotzat bi harrirekin, eta han ere gurutze eta burezurak; ez zegoen han egoterik etzanda edo eserita izan ezik; belar onduaz beterik zeuden (lekua oso hotza zelako eta teilatua ia buruen gainean zutelako). Matutiak amaitu ondoren, primaren otoitzera arte ez zirela berriro hara itzultzen jakin nuen; han geratzen zirela otoitzean, eta hain handia izanik, primaren otoitzera zihoazenean, abituak elurrez zurituak izaten zituztela eta ez zirela konturatzen. Orduen otoitzak, oihaldunetako beste fraide batekin, beraiekin egotera joan zen eta gaixoa zelako abitua aldatu ez zuen batekin, errezatzen zituzten, eta beste fraide gazte bat ere, apaiztu gabea zena, han zegoen<sup>37</sup>.

8. Inguru haietan inolako irakaspenik gabe dauden leku askotara joan ohi ziren predikatzaera, eta horregatik ere poztu nintzen han etxe bat egin zelako; esan zidaten ez zegoela monasteriorik hurbil ezta non edukirik ere, benetan tamalgarria baitzen. Denbora motzean hainbesteko ospe ona zuten, non poz handi-handia hartu bainuen jakin nuenean. Predikatzaera zihoazen –diodanez– legoa bat eta erdi, bi legoa, oinutsik (ordu an ez zuten abarketarik erabiltzen, gero bai janzteko agindu zieten), eta elurraz eta hotzaz; eta predikuak egin eta aitortzak entzun ondoren, oso berandu itzultzen ziren beren etxera bazkaltzera. Pozaren pozez, guztia zuten gutxitzat.

9. Janariari dagokionez ugari samar zuten, inguru hartakoek ematen zietelako behar zuten baino gehiago; eta toki haietan zeuden zaldun batzuk aitortzera etorri ohi ziren hara, eta etxe eta toki hobeak eskaintzen zizkieten. Hauetakoa bat On Luis zen, Bost Herrixketako Jauna<sup>38</sup>. Zaldun honek Andre

<sup>37</sup> Hauek ziren: A. Lukas Celis eta An. Jose Kristorena.

<sup>38</sup> Bost herrixkak hauek ziren: Salmoral, Naharros, San Miguel, Montalvo eta Gallegos. On Luisen bi seme-alaba karmeldar izan ziren: Enrique eta Isabel.

Mariaren imajina batentzat eliza bat eraiki zuen, eta, egia esan, gurtzeko eran jartzea merezi zuena zen. Haren aitak bidali zion merkatari baten bitartez Flandesetik haren amonari edo amari (ez bainaiz gogoratzen zeini). Benetan maite zuen, eta urte askoan eduki zuen, eta gero, heriotzako orduan eraman zezatela agindu zuen. Erretaula handia da; nik neure bizian ez dut hoberik ikusi (eta beste pertsona batzuk ere gauza bera diote). Aita Frai Antonio Jesusenak, zaldun honen eskariz toki hartara joan eta imajina ikusi zuenean, hartaz guztiz zaleturik geratu zen, eta arrazoi handiaz, monasterioa hara aldatzea onartu zuen<sup>39</sup>. Toki honi Mancera deritzo. Putzuko urik eduki ez arren eta, zirudienez, ezta han edukitzeko modurik ere, jaun honek haien bizimoduari zegokion erako monasterioa eraiki zien, txikia, eta eliz jantziak eman zituen. Oso ongi egin zuen.

10. Ez dut esan gabe utzi nahi nola eman zien Jaunak ura, miraritzat hartua izan baitzen. Aita Frai Antonio, priorea, afal ondoren klaustroan bere fraideekin uraren premiaz hizketan ari zela, jaiki zen priorea eta eskueran zuen pordoi bat hartu eskuetan eta haren zatiren batean gurutzearen seinalea egin zuela uste dut; ez naiz gogoratzen ongi gurutzea egin zuen; baina, azken batean, makilaz seinalatu eta esan zuen: “oraintxe, aitzurtu hemen”. Aitzurtu eta aldi oso gutxira, hainbeste ur irten zen, non, garbitzeko erabilia ere, nekez agor baitzitekeen; eta edateko ur oso ona; obra guztian handik hartu dute, eta –diodanez– ez da egundo agortzen. Geroago soro bat hesitu zuten, ura lortzen saiatu ziren, ur-gurpila jarri eta gastu handiak egin zituzten. Orain arte ezertxo ere ezin izan dute aurkitu.

11. Pixka bat lehenago han egoterik ez zen-eta, etxetxo hura ikusi nuenean, halako espirituaz, begiratzen nuen aldera


<sup>39</sup> Durueloko komentua utzi eta Mancerara aldatzea 1570eko ekainaren 11n gauzatu zen.

begiratzan nuela –uste dut– onbideratzeko zerbait aurkitzen nuela, eta konturatu nintzen nola bizi ziren, nolako hilduraz eta otoitzez, eta zein etsenplu ona ematen zuten; izan ere, ikustera etorri zitzaizkidan handik hurbil zeuden jaun bat eta honen emaztea, nik ezagutzen nuena, eta haien santutasuna eta herri haietan egiten zuten on handia niri kontatzea bukatu besterik ez zuten egin, eta ez nintzen nekatzen gure Jaunari eskerrak ematen, barruko poz handi-handiaz, gure Ordenaren onerako eta gure Jaunaren zerbitzurako hasiera emana ikusten nuela iruditzen baitzitzaidan. Haren Maiestateak nahi beza aurrera eramatea, orain doazen bezala, horrela nire asmoa oso egiazkoa izango baita.

Nirekin joan ziren merkatariek esaten zidaten, munduko ezergatik ere ez zuketela nahi izango hara joan gabe geratzetik. Zer den, gero, bertutea; erakargarriago gertatu baitzitzaizen txirotasun hura beraiek zituzten aberastasun guztiak baino, eta arima ase eta kontsolatu baitziren!

12. Zenbait gauzari buruz aita haiek eta ni solasean aritu ondoren, batez ere –ni ahula eta kaskarra naizenez gero– biziki eskatu nien, penitentzia gauzetan ez zitezela hain zorrotzak izan, oso zorrotz zeramatelako hori; eta Jaunak obra honi hasiera emango ziotenak niri ematea, desiraz eta otoitzez, hainbeste kosta zitzaidanez gero eta hasiera hain ona ikusten nuenez gero, beldur nintzen deabrua ez ote zen arituko haiek nola galduko nik itxaroten nuena gauzatua izan baino lehen. Inperfektua eta fede motelekoa izanik, ez nintzen konturatzen Jainkoaren obra zela eta Haren Maiestateak eramango zuela aurrera. Haiek, niri falta zitzaizkidanak zituztenez gero, ez zieten jaramon handirik egin nire hitzei beren egintzak alde batera uzteko; eta horrela, poz-pozik joan nintzen, hain mesede handiagatik Jainkoa merezi zuen adina goersten ez banuen ere.

Haren Maiestateak nahi dezala, bere ontasunagatik, zer edo zertan Berari zerbitzu egiteko duin izan nadila ni, hainbeste zor




diodanez gero, amen; ongi bainekien mojen etxeak fundatzean egiten zidana baino askoz ere mesede handiagoa zela hau.

### **5. Jaungoikoaren ibiltaria (F 18, 4-5)**

4. Ez ditut jartzen fundazio hauetan bideetako neke handiak, hotzez, eguzki beroz, elurrez, batzuetan egun osoan elu-

rra geratu gabe zela, beste batzuetan bideak erraturik, beste batzuetan nahiko gaixorik eta sukarrez, bada, Jainkoaren aintzarako, ohikoa zen nik osasun onik ez izatea, baina argi ikusten nuen Jaunak ematen zidala indarra. Izan ere, fundazioa egin behar zen egun batzuetan gertatzen zitzaidan hainbeste gaitzez eta minez egotea, non biziki nahigabetzen bainintzen, oheratu gabe gelan egoteko eran ere ez nengoela iruditzen zitzaidalako; eta gure Jaunagana jo, eta Haren Maiestateari





kexatzen nintzaion esanez, nola nahi zuen ezin nuena egitea, eta gero, nekez bada ere, Haren Maiestateak indarrak ematen zituen, eta hartzen nuen gar eta arduraz neure buruaz ahaztu egiten nintzela zirudien.

5. Orain gogoratzen naizenez, egundo ere ez nuen utzi fundaziorik egin gabe nekearen beldurrez; hala ere bideetan, batez ere luzeetan, neke handia izaten nuen; baina behin ibiltzen hasiz gero, gutxi iruditzen zitzaidan, noren zerbitzuan egiten nuen kontuan izanez eta etxe hartan Jauna goretsiko zela eta Sakramentu guztiz Santua izango zela gogoratuz. Hau berariazko poza da niretzat, eliza bat gehiago ikustea, luterotarrek kentzen dituzten hainbestez gogoratzen naizenean: ez dakit zer nekeren beldur izan gaitezkeen, denik eta handiena bada ere, hain on handia lortzen bada kristautasunarentzat; izan ere, gutariko asko konturatu ez arren, Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona, hainbeste lekutan egotea Sakramentu guztiz Santuan dagoen bezala, guretzat oso pozgarri izan beharko luke. Hain zuzen ere, halakoxe poza hartzen dut nik askotan, arima garbi hauek koruan Jainkoa gorensten ikusten ditudanean, hau gauza askotan antzematen baita, bai obedientzian, bai itxitura handiak eta bakardadeak ematen dieten poza ikustean eta baita hildurazko gauza batzuk gertatzen direnean izaten duten alaitasunean ere; haiei praktika hauek eginarazteko Jaunak prioreari zenbat eta grazia handiagoa eman, hainbat handiagoa da nabari dudan poztasuna; eta horrela, prioreak lehenago nekatzen dira praktikak agintzen haiek obeditzen baino, beti geratzen baitira gehiago egin nahirik.